

berria

Kultura >

«Aberrazio sozial alimaleko» baten funtzionamendua azaldu nahian

Kartzelari buruzko collage bat osatu du Markel Ormazabalek 'Hemen naiz, ez gelditzeko baina' liburuan.

Sei urteko kartzelaldia du oinarri



Markel Ormazabal, bere lehen liburua eskuetan duela. ANDONI CANELLADA / ARP

2014-07-02 / Juan Luis Zabala

Kartzela «aberrazio sozial alimalekoa, ikaragarria» da, Markel Ormazabalen ustez (Donostia, 1982). «Zoritxarrez», gaztetatik ezagutu du kartzela oso gertutik, «herri honetako jende askok bezala»; lehenik senideak eta lagunak bisitatzera

joanez; gero halabeharrezko bizileku izan duelako. Euskal Herrian presentzia garrantzitsua duen errealitatea izanagatik, eta hari buruz asko idatzi den arren, «kartzela den aberrazio sozial hori guztia ez da mahai gainean jarri», Ormazabalen ustez, eta ez da behar bezain ezaguna. *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* (Txalaparta), bere lehen liburua, eskarmentu pertsonalean eta beste preso askoren lekukotasunetan oinarrituta idatzitakoa, hutsune horri aurre egiteko zereginen «aletxo bat» izan dadin nahiko luke Ormazabalek.

Bi aldiz kartzelatu dute Ormazabal: 2002an lehenengoz, kale borroka talde batean aritzea egotzita; 2007 eta 2013 artean bigarrenegoz, Jarrai-Haika-Segi sumarioan auzipetuta. Bigarren kartzelaldi horretan idatzi ditu liburua osatzen duten testuak, ia denak Ocaña I-eko espetxean (Espainia).

Kartzelan artean urtebete baino gutxiago zeramala, presoek eskubideen aldeko dinamiketan parte hartzen 30 urte baino gehiago zerman emakume bat joan zen Ormazabalen gurasoen etxera, janari poltsekin. Gaur egun, ordea, debekatuta dago presoek kanpotik janaria sartzea. Emakume hark gurasoei egindako eskaintzak zer pentsatua eman zion Ormazabali: «Emakume hark bizitza erdia pasatu bazuen horrelako borroketan sartuta, eta ez bazekien debekuak aldatu egin zirela, horrek erakusten zuen ezer gutxi dakigula kartzelari buruz».

Kartzela «kartzelari buruzko topiko guztiak eta gehiago» da, amaierarik gabeko ezustekoen iturburua. «Bai patio batera, bai bisitara edo bai kartzelaren kanpoaldera gerturatzen zaren aldiro, kartzelak badu harridura sortzeko gaitasun handi bat, eta hori da, neurri handi batean, kartzelaz gutxi dakigulako».

Idazten hasi aurretik, liburua osatzen lagunduko zion materiala bildu zuen: artikuluak, lekukotasunak, film eta liburuei buruzko erreferentziak, baita adiskide eta senideek bidalitako gutunak ere... Ondoren, liburuari zer forma emango zion zehaztu gabe ekin zion idazketa lanari.

«Kartzela deskribatzen baino gehiago, kartzelaren beraren funtzionamendua deskribatzen saiatu naiz». Horretarako, kartzelako geografia osatzen duten guneei erreparatu eta piezak batzeko «itsasgarri gisa» musika darabilen «collage bat» osatu du. Musika, collage horrek behar duen itsasgarria ez ezik, kartzelak ezarritako askotariko ezintasun ugarien adibideetako bat ere bada, debeku eta

oztopoen ondorioz musika «elementu subertsibo bat» bilakatzen baita sarritan espetxeetan.

0 Comments

Berria

 Login ▾

Sort by Newest ▾

Share  Favorite 



Start the discussion...

Be the first to comment.

 Subscribe

 Add Disqus to your site

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.
Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172
Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.info |
Publizitatea: publi@bidera.eu
Harpidetza: harpidetza@berria.info

[Lege Informazioa](#) | [Pribatutasun politika](#) |
[Cookie politika](#) | [Publizitatea](#)

berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

[www.euskalherriko
plaza.com](http://www.euskalherriko.plaza.com) 

Mauka **BADOK**

hitza 

IRRIEN  **LAGUNAK** 
www.irrienlagunak.com

Hamaika
telebista

iragarkilaburrak.com